

GORLIZKO KULTUR ETXEKO KALITATE ETA INGURUMEN POLITIKA

Badira hainbat urte kalitate eta ingurumen gaitan gabiltzala, urtero egin ohi den bezala Gorlizko Kultur Etxeak Kalitate eta Ingurumen Politika berrikusi, onartu eta ezarri du.

Kontutan izaten ditugu herritarrek helarazitako proposamenak eta aurreko urteetako esperientziak. Horregatik, Gorlizko udalerrian antolatutako kultur eta kirolak ekintzak, Udal Liburutegia, Gazte Zerbitzuak eta Sertutxenako kudeaketa era erangikor eta ingurumenarekin adeitsuak izatea lortu nahi dugu. Hobekuntza etengabea eta ingurumenaren babesa sustatzeko konpromisoa hartzen dugu, beti ere lege eta beste eratako betebeharrak kontutan harturik.

Gorlizko Kultur Etxeko Kalitate eta Ingurumen Politika berri honen ardatz nagusiak hurrengoak dira:

1. Kultur Etxetik jarduerak antolatzean herritarren iritzia eta balorazioak kontutan hartuko dira eta herritarren partaidetza bultzatuko da.
2. Gazteria zerbitzuak bermatuko dira eta Gazteen partaidetza indartuko da.
3. Herritarren artean jarduera fisikoa sustatu, kirol ekimenak antolatuz eta iragarriz.
4. Herritarren ingurumen sentsibilizazioa sendotuko da.
5. Kultur Etxeko barne kudeaketan ingurumen estrategia eta irizpideak ezarriko dira, batez ere energia eta uraren erabilera eraginkorra egiteko eta hondakinen birziklapena bermatzeko..



Gorlizko Alkatea



Gorlizen, 2019ko maiatzaren 9an



Gorlizko Kultur Etxeko Zuzendaria